



Eibarko Udala

HIRIGINTZA SAILEKO ARKITEKTO LANPOSTU BAT

Lehenengo ariketa:

2020-12-02

1 SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN LEGEAN ZEHAZTATUKO KONTRATU TXIKIEI BURUZKO BAIEZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA ZUZENA?

- 1a) Kontratu txikitat hartuko dira 25.000 eurotik beherako hornidura galkorren kontratuak.
- 1b) Kontratu txikiak 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak dira, baldin eta obra-kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakoak, baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira.
- 1c) Kontratu txikiak dira kontratazio-organoaren onarpena behar ez dutenak.
- 1d) Kontratu txikiak dira obra txikiak egitearekin bat datozenak.

2 DIRULAGUNTZEN LEGE OROKORRAREN ARABERA, ZER DIRULAGUNTZA MOTA EMAN DAITEZKE ZUZENEAN?

- 2a) Bakarrik estatuaren, autonomia-erkidegoen edo toki-erakundeen aurrekontu orokorretan modu izendunean aurreikusitakoak.
- 2b) Bakarrik Administrazioari zenbatekoa edo dirulaguntza eman beharra lege mailako arau batek ezartzen dionean.
- 2c) Bakarrik eta salbuespenez, deialdi publikoa egitea oztopatzen duten interes publikoko arrazoiak eta arrazoi sozial, ekonomiko edo humanitarioak egiaztatzen direnean edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuk tartean daudenean.
- 2d) Goian adierazitako hirurak.

3 ZEIN DA TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN OSAERA, UDAL ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA?

- 3a) Gobernu Batzarra alkate-udalburuak eta udal talde bakoitzeko kide batek osatzen dute.
- 3b) Gobernu Batzarra, alkate-udalburuak eta herenetik gorakoa izango ez den zinegotzi-kopuru batek osatzen dute.
- 3c) Gobernu Batzarra alkateak, idazkariak, kontu-hartzaileak eta Pertsonal Saileko buruak osatzen dute.
- 3d) Aurreko hiru erantzun horietatik bat bera ere ez da zuzena.

4 BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA BENETAKOA?

- 4a) Epeak egunetan jartzen badira, egun naturalak direla ulertuko da.
- 4b) Epeak egunetan jartzen badira, egun naturalak direla ulertuko da; beraz, abuztua ez da zenbatuko.
- 4c) Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez den bitartean, epeak egunetan jartzen badira egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak.
- 4d) Epeak egunetan jartzen badira egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta abuztua.

5 ESKUMEN HAUETATIK ZEIN EZ DA UDALAREN ESKUMEN PROPIOA?

- 5a) Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
- 5b) Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziiplina.
- 5c) Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziiplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.
- 5d) Herriko ospitaleen azpiegitura antolatzea eta kudeatzea.

6 KONSTITUZIOAN AITORTUTAKO BILTZEKO ESKUBIDEARI DAGOKIONEZ, BAIETAPEN HAUETATIK ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 6a) Bilerak eta manifestazioak debekatu ahal izango dira, pertsona eta ondasunen arriskuaz, ordena publikoa asaldatzeko arrazoi oinarrituak daudenean.
- 6b) Bilerak egiteko eskubideaz baliatzeko ez da aurretiazko baimenik behar.
- 6c) Bilerak iraganbide publikoetan egiteko edo manifestazioak burutzeko, autoritateari aldeztatik jakinarazpena egin behar zaio.
- 6d) Biltzeko eskubidea bertan behera gera daiteke salbuespen- edo alarma-egoera adierazten denean, Konstituzioan jasotakoaren arabera.

7 TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN LEGEAREN ARABERA, BIZTANLERIARI ETA UDAL ERROLDARI BURUZKO BAIETAPEN HAUETATIK, ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 7a) Udalerri bat baino gehiagotan bizi denak urtean 6 hilabete baino gehiago bizi den horretan inskribatu beharko du.
- 7b) Udalerriko erroldan inskribatutako pertsonen multzoak osatzen du udalerriko biztanleria.
- 7c) Udalerriko erroldan inskribatutakoak dira udalerriko auzotarrak.
- 7d) Erroldan inskribatzeko unean bertan eskuratzen da herriko bizilagun izaera.

8 TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN LEGEAREN ARABERA, ESKUMEN HAUETATIK ZEIN DAGOKIO TOKIKO GOBERNU BATZARRARI?

- 8a) Alkateari bere eskumenak gauzatzeko laguntzea, Estatuaren legediak edo autonomia erkidegoenak aurreikusten dutenean.
- 8b) Udalbatzak eskuordetzan emandako eskumenak.
- 8c) Obra- eta zerbitzu-proiektuak onartzea, haiek kontratatu edo emateko eskuduna denean.
- 8d) Lizentziak ematea.

9 TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN LEGEAREN ARABERA, ESKUMEN HAUETATIK, ZEIN EZ DA HIRIGINTZA ARLOKO UDAL ESKUMENA?

- 9a) Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, gauzatzeko eta diziiplina.
- 9b) Sistema orokorren eta tokikoen sarearen zuzkidura publikoak zuzenean okupatzea.
- 9c) Ondare historikoaren babesa eta kudeaketa.
- 9d) Eraikuntzaren kontserbazioa eta zaharberritzea.

- 10 4/1990 LEGEA, LURRALDE ANTOLAKUNTZARI BURUZKOA. LURRALDE PLAN SEKTORIALEK LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEKIN ETA, KASUA BADA, LURRALDE PLAN PARTZIALEKIN DUTEN ERLAZIOA.**
- 10a) Ezingo da Lurralde Plan Sektorialik onartu, ez badira aurretik onartu Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eta haiek garatzen dituzten Lurralde Plan Partzialak.
- 10b) Baldin eta Lurralde Plan Sektorialen eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen artean eta, hala badagokio, Lurralde Plan Partzialen artean kontraesanik badago, deuseztatu egingo dira horiek jasotzen dituen Plan Sektorialaren zatia edo zatiak.
- 10c) Baldin eta Lurralde Plan Sektorialen eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen artean, eta, hala badagokio, Lurralde Plan Partzialen artean kontraesanik badago, kontraesan horiek Lurralde Antolamenduaren Batzordeak nahitaez ebatzi beharko ditu, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaizkio, behin betiko onar ditzan.
- 10d) Baldin eta Lurralde Plan Sektorialen eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen artean, eta, hala badagokio, Lurralde Plan Partzialen artean kontraesanik badago, nahitaez onartu beharko dira lurralde-antolamenduko tresnetan ezinbestekoak diren zuzenketak.
- 11 GIDALERRO HAUETATIK, ZEIN EZ DAGO UZTAILAREN 30EKO 128/2019 DEKRETUAREN BIDEZ ONARTUTAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE-ANTOLAMENDUKO GIDALERROETAN?**
- 11a) Hiri-berroneratzearen arloko gidalerroak.
- 11b) Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren arloko gidalerroak.
- 11c) Espazio libreen eta aisialdiko eremuen zuzkidura publikoen lurzoruaren arloko gidalerroak.
- 11d) Hiri-hazkundearen perimetroaren arloko gidalerroak.
- 12 BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOA ETA JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZAK. HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DAGO JASOTA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEN IV. ERANSKINEAN?**
- 12a) Jendea bizi den etxebizitza bihurtzeko berreskuratu behar diren jenderik gabeko etxebizitzaren gutxieneko kopurua, udalerrriaren plangintzaren hasieran dauden etxebizitza guztien % 2a izango da.
- 12b) Ez dira kontuan hartzen bigarren mailako etxebizitzak eta jenderik gabekoak, informazio orokorra ez delako oso fidagarria alderdi horiei dagokienez.
- 12c) Jendea bizi den etxebizitza bihurtzeko berreskuratu behar diren jenderik gabeko etxebizitzaren gutxieneko kopurua, Lurralde Plan Partzialek ezarri beharko dutena, udalerrian plangintzaren hasieran dauden etxebizitza guztien % 10a izango da.
- 12d) Aurreko hiru erantzun horietatik bat bera ere ez da zuzena.
- 13 EAE-KO IBAIERTZAK ETA ERREKAERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK GUTXIENEO ERRETIROAK EZARTZEN DITU, LURRAZPIA ERAIKUNTZA BERRIKO APARKALEKUEKIN ETA SOTOEKIN OKUPATZEKO:**
- 13a) 5 metro ubide publikoarekiko garatutako eremuetan.

- 13b) 5 metro ubide publikoarekiko, edozein kasutan.
- 13c) 5 metro ubide publikoarekiko hiri-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuetan.
- 13d) metrotik beherakoa, hiri-birmoldaketako zonetan, lehendik dagoen hiri-garapena zaharkituta egonik eraikuntza berritzea komeni bada, eta dagokion hirigintza-planaren (PERI) eta azterlan hidrauliko osagarriaren bidez justifikatzen bada.

14 URAREN 1/2006 EUSKADIKO LEGEAREN 7. ARTIKULUAREN ARABERA, URAREN EUSKAL AGENTZIAREN EGINKIZUN DIRA:

- 14a) Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txosten loteslea egitea. Txosten horrek izango duen mintzagai bakarra Udal planeamenduaren eta herri-jabari hidraulikoaren erabilpenaren eta babesaren arteko erlazioa izango da.
- 14b) Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txosten loteslea egitea. Txosten horrek izango duen mintzagai bakarra Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal plangintzaren arteko erlazioa izango da.
- 14c) Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txostena nahitaez egitea. Txosten horrek izango duen mintzagai bakarra Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal plangintzaren arteko erlazioa izango da.
- 14d) Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txosten loteslea egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak azter dezan. Txosten horrek izango duen mintzagai bakarra Udal plangintzaren eta herri-jabari hidraulikoaren erabilpenaren eta babesaren arteko erlazioa izango da.

15 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TRENBIDE-SAREAREN LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN INDARRALDIA HAUXE IZANGO DA:

- 15a) 8 urtekoa, indarraldian zehar sartzten diren aldaketak alde batera utzita.
- 15b) 8 urtekoa.
- 15c) Mugagabea.
- 15d) Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.

16 NEKAZARITZAKO USTIAGUNEARI LOTUTAKO ETXE ISOLATUAK ERAIKITZEKO BAIMENA EMATEKO ZER BALDINTZA EZ DAGO JASOTA NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALEAN?

- 16a) Baserrian lan egiten duten eta baserriaren buru jarraitzeko asmoa duten seme edo alaba jaraunsleek familia berri bat eratzea, baserrian lekurik ez dagoenean bigarren etxebizitza bat jasotzeko.
- 16b) Lehendik dagoen baserria legezko aurri-egoeran dagoela deklaratu denean, indarrean dagoen hirigintza-legeriaren arabera.
- 16c) Lehendik dagoen baserria desjabetze-xede izan denean.
- 16d) Baratze- eta abeltzaintza-ustiagune bati lotutako eraikuntza, hura ohiko etxebizitza moduan erabiltzen duenean ustiagune ekonomikoa kudeatuko duen pertsona titularrak.

- 17 PAISAIAREN KATALOGOAK DIRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EREMU FUNTZIONAL BAKOITZEKO PAISAIA OSOA HARTZEN DUTEN DESKRIPZIO-ETA PROSPEKZIO-AGIRIAK:**
- 17a) eta dagokien Lurralde-Plan Partzialean txertatu behar dira
 - 17b) eta Eusko Jaurlaritzak egiten ditu, ofizioz edo Foru Aldundiek eskatuta.
 - 17c) eta paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolaketa burutzeko ekintzak zehazten dituzte.
 - 17d) eta, gutxienez, paisaia-interes bereziko eremuak identifikatu behar dituzte.
- 18 GIPIZKOAKO ERREPIDE ETA BIDEEN BABESGUNEAN ERAIKITZEN DIREN ERAIKINAK, NON KOKATUKO DIRA?**
- 18a) Eraikuntzetarako izaera orokorrez ezarritako gutxienerako distantzietara
 - 18b) Errepideen zabaltzaren kanpoko ertzetik edo lerrotik 8 metro baino gehiagora eta bideen zabaltzatik 3 metro baino gehiagora.
 - 18c) Antolamendu Planean ezarritako distantziara.
 - 18d) Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.
- 19 LURZORUA KUTSA DEZAKEEN JARDUERAREN EDO INSTALAZIAREN BAT DAGOEN EDO EGON DEN LURZORUAREN ERABILERA ALDATZEN DENEAN:**
- 19a) Lurzoruaren kalitateari buruzko deklarazioa ingurumen-organoak egin beharko du, betiere kokagunea barne hartzen duen kudeaketa-eremua Urbanizatzeko Jarduketa-Programa behin betiko onartu aurretik.
 - 19b) Lurzoruaren kalitateari buruzko deklarazioa lursailaren antolamendu xehea jasotzen duten hirigintza-bitartekoak behin betiko onartu baino lehen egin beharko du ingurumen-organoak.
 - 19c) Lurzoruaren kalitatearen deklarazioa lizentzia eman arte atzeratu ahal izango da, baldin eta kokapenean, osorik edo zati batean, lurzoruaren kalitatearen ikerketak egitea eragozten duten inguruabarrak badaude.
 - 19d) Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.
- 20 BABES BEREZIA ETA ERTAINA DUTEN KULTURA-ONDASUNEN AURRI-DEKLARAZIOA. BAIEZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA ZUZENA?**
- 20a) Babes berezia eta ertaina duten kultura-ondasunen aurri-deklaraziorik ezin da egin.
 - 20b) Babes berezia eta ertaina duten kultura-ondasunen aurri-deklarazioa hur-hurreko aurri-egoeretan baino ezin da egin.
 - 20a) Babes bereziko kultura-ondasunen aurri-deklarazioa Euskal Kultura Ondarearen EAEko Kontseiluaren nahitaezko irizpen loteslearen ondoren baino ezin da egin.
 - 20d) Babes berezia eta ertaina duten kultura-ondasunen aurri-deklarazioa dagokion foru-aldundiak higiezinaren egoerari buruzko txostena egin ondoren baino ezin da egin.
- 21 INGURUMENAREN BABES OROKORRARI BURUZKO 3/1998 LEGEAREN ARABERA, JARDUERA-LIZENTZIEN KASUAN, NORK EGINGO DU ESKATUTAKO JARDUERA INSTALATZEKO EDO HANDITZEKO PROIEKTUARI NEURRI ZUZENTZAILEAK EZARTZEN DIZKION TXOSTENA?**

- 21a) Udalak, gehienez ere 15 eguneko epean.
- 21b) Autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak edo foru-organo eskudunak
- 21c) Autonomia-erkidegoko ingurumen-organismoak.
- 21d) Foru-organo eskudunak.

22 171/1985 DEKRETUAREN ARABERA, AKADEMIEN ETA HAURTZAINDEGIEN KASUAN,

- 22a) Egunean 10 eta 50 ikasle bitarteko jarduerak etxebizitza gisa ere erabiltzen den solairuan instalatu ahal izango dira, baldin eta kaletik sarbide zuzena badute eta bizilagunengandik bereizitako ataria badute, harekin eta eskailera-kaxarekin komunikaziorik izan gabe.
- 22b) Egunean 50 ikasle baino gehiagoko jarduerak etxebizitzetarako erabiltzen den solairutik kanpo instalatu beharko dira, horien azpian, kaletik sarbide zuzena izango dute eta bizilagunengandik bereizitako ataria izango dute, harekin eta eskailera-kaxarekin loturarik izan gabe.
- 22c) Egunean 50 ikasle baino gehiago dituzten jarduerak etxebizitzetarako solairuen azpian instalatu beharko dira, kaletik sarbide zuzena izango dute eta bizilagunengandik bereizitako ataria eta igogailua izango dute, eskailera-kaxarekin loturarik izan gabe.
- 22d) Egunean 10 eta 50 ikasle bitarteko jarduerak etxebizitzetarako erabiltzen den solairua ez den beste batean egin beharko dira eta horien azpian, sarbide independenterik behar izan gabe.

23 ERAIKUNTZAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO 38/1999 LEGEAREN ARABERA, ERAIKITZAILEA IZANGO DA, BESTEAK BESTE, EGITURAZKO ELEMENTUEN AKATSEI ERAGITEN DIETEN EXEKUZIO-AKATSEK ERAGINDAKO KALTE MATERIALEN ERANTZULE...

- 23a) Urtebetez
- 23b) Hiru urtez
- 23c) Bost urtez
- 23d) Hamar urtez

24 ERAIKUNTZAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO 38/1999 LEGEAREN ARABERA, HAUEK DIRA ERAIKUNTZAREN ERAGILEAK:

- 24a) Sustatzailea, eraikitzailea eta jabeak; ez, ordea, erabiltzaileak, eraikuntza-prozesuaren ondoren esku hartzen dutelako eta ez daudelako eraikuntza-prozesuari lotuta.
- 24b) Bakar-bakarrik obran esku hartzen duten eragileak: proiektugilea, obra-zuzendaria, obra gauzatzeko zuzendaria, eta eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko laborategiak eta erakundeak.
- 24c) Eraikuntzaren prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiak, fisikoak zein juridikoak.
- 24d) Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko erakundeak eta laborategiak, produktuen hornitzaileak eta higiezin agentek.

- 25 LEHENDIK DAGOEN ERAIKIN BATEAN, MERKATARITZA-LOKAL BATEN ERABILERA BESTE ERABILERA BATERA ALDATZEKO, BEHARREZKOA AL DA ERAIKUNTZAREN KODE TEKNIKOAK EZARRITAKO OINARRIZKO ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEA?**
- 25a) Bakarrik bizitegi-erabilerarako aldaketa denean.
25b) Bakarrik erabilera-aldaketak egiturazko segurtasunari eragiten dioten obrak dakartzanean.
25c) Bai, erabilera-aldaketak eraikinaren erabilera bereizgarriari eragiten badio.
25d) Ez, Eraikuntzaren Kode Teknikoa eraikuntza berriko obretan eta bizitegi-eraikinak eraberritzeko obretan baino ez da aplikatzen.
- 26 ERAIKUNTZAREN KODE TEKNIKOAREN ARABERA, PROIEKTUAK PROIEKTATUTAKO OBRAK ZEHAZTUKO DITU, HAIEN EZAUGARRIETARA EGOKITUTAKO XEHETASUNAREKIN, PROPOSATUTAKO IRTENBIDEEK EKT-REN ETA APLIKATU BEHARREKO GAINERAKO ARAUDIAREN OINARRIZKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DITUZTELA EGIAZTATU AHAL IZATEKO MODUAN, ETA, BESTEAK BESTE, HONAKO INFORMAZIO HAU JASOKO DU:**
- 26a) Bukatutako eraikina erabiltzeko eta mantentzeko jarraibideak, EKTn eta aplikatu beharreko gainerako araudian aurreikusitakoaren arabera.
26b) Obra gauzatzean erabiltzen diren produktuek, ekipoez eta sistemek bete behar dituzten gutxieneko ezaugarri teknikoak.
26c) Eraikinaren egitura osatzen duten obra-unitateen eta haien ezaugarri teknikoen deskribapen laburra, obrak gauzatzeko baldintzak eta proiektuan adierazitakoarekin bat datozen egiaztatze egin beharreko egiaztapenak eta kontrolak adierazita.
26d) Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.
- 27 OD-SS KODE TEKNIKOAREN ARABERA, BAIETAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA? IRTEERA BAT BAINO GEHIAGO DITUZTEN ESPARRU ITXIETAKO SOLAIRU-IRTEERA BATERAINOKO EBAKUAZIO-IBILBIDEEN LUZERA...**
- 27a) Ez da inoiz 50 m-tik gorakoa izango
27b) Ez da 50 m-tik gorakoa izango, eta % 25 luzatu ahal izango da, baldin eta alarma-instalazioa duen sektore baten barruan badago.
27c) Ez da 35 m-tik gorakoa izango ospitaleratze-solairuetan edo ospitale-erabilerako tratamendu intentsiboko solairuetan.
27d) Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.
- 28 ERABILERA-SEGURTASUNEN OINARRIZKO DOKUMENTUAREN ARABERA, ERABILERA EZ-MUGATUKO ARRAPALEN GEHIENEN MALDA...**
- 28a) Gehienez ere % 12koa izan daiteke, ibilbide irisgarrietan aurreikusitakoak izan ezik
28b) Gehienez ere % 10ekoa izan daiteke.
28c) Gehienez ere % 10ekoa izan daiteke, 6 metrotik beherako luzera duten arrapalen kasuan.
28d) Pertsonen zirkulaziorako ere aurreikusita dauden eta ibilbide irisgarri batekoak diren aparkalekuetako ibilgailuen zirkulazio-arrapalen kasuan, gehienez % 16ko maldak izan dezakete.

- 29 ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOARI BURUZKO UZTAILAREN 24KO 117/2018 DEKRETUAREN ARABERA, IKUSKAPENAREN GUTXIENEO LAGINAK, ERAIKIN OSOARI ETA ATARI BAKOITZARI DAGOZKIONAK, HONAKO HAUEK HARTU BEHARKO DITU:**
- 29a) Beheko solairu osoa, teilatupeko solairua eta lurrarekin kontaktuan dauden solairuak (erdisotoak, sotoak, etab.). Gainerako solairuetan, laginak solairu guztietan dauden etxebizitzan edo erabilera tertziarioko lokalen % 60 hartuko du gutxienez.
- 29b) Beheko solairu osoa, eta lurrarekin kontaktuan dauden solairuak (erdisotoak, sotoak, etab.). Gainerako solairuetan, teilatupekoa barne, laginak solairu guztietan dauden etxebizitzan edo erabilera tertziarioko lokalen % 60 hartuko du gutxienez, eta solairu bakoitzean gutxienez etxebizitza edo lokal bat hartuko du.
- 29c) Solairu guztietan, laginak solairu guztietan dauden etxebizitzan edo erabilera tertziarioko lokalen % 60 hartuko du gutxienez, adierazgarria izan dadin ikuskatzen ari den eraikinaren eraikuntza-elementuen behar bezalako ezagutza izateko.
- 29d) Eraikin osoa, beheko solairuko merkataritza-lokalak izan ezik.
- 30 ERAIKUNTZA JASANGARRIKO OBRA HANDI BATEN HIRIGINTZA-LIZENTZIAK ESKURATZEKO, FIDANTZA BAT JARRI BEHAR DA ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIA BERMATZEKO. ZEIN DA FIDANTZA HORREN ZENBATEKOA?**
- 30a) Obraren kostu osoaren % 1,2ko fidantza; aparteko kapitulu batean, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren kostua sartuko da.
- 30b) Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren kostuaren % 1,2, hondakinen eta eraikuntza- eta eraispén-materialen kudeaketa-azterketan zehaztuko dena.
- 30c) Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren kostuaren % 120, hondakinen eta eraikuntza- eta eraispén-materialen kudeaketa-azterketan zehaztuko dena.
- 30d) Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren kostuaren % 60, hondakinen eta eraikuntza- eta eraispén-materialen kudeaketa-azterketan zehaztuko dena.
- 31 ONDARE URBANIZATUA ETA ERAIKIA BIRGAITZEKO JARDUKETA BABESTUEI BURUZKO 317/2002 DEKRETUAREN IV. ERANSKINEAN, BAIMENDUTA AL DAGO BIZITZEKO ESPAZIO BAT ESKAILERA-ZULOTIK ARGIZTATZEA?**
- 31a) Ez. Bizitzeko espazioek, komunetan, sukaldeetan eta despentsetan izan ezik, zuzenean kalera ematen duten kristalezko irekiuneak izango dituzte.
- 31b) Salbuespen gisa, bizitzeko espazioak, komunetan, sukaldeetan eta despentsetan izan ezik, eskailera-zuloaren bidez argiztatu ahal izango dira, betiere nahikoa argi iristen zaionean.
- 31c) Bai. Bizitzeko espazioek, komunetan, sukaldeetan eta despentsetan izan ezik, zuzenean kalera ematen duten kristalezko irekiuneak izango dituzte edo galerien bidez edo eskailera-zuloaren bidez jaso dezakete argiztapena. Kasu horietan, aireztapen-azalera % 50 handitu beharko da.
- 31d) Bai, bizitzeko espazioak, komunetan, sukaldeetan eta despentsetan izan ezik, eskailera-zulotik argiztatu ahal izango dira, eskailerak argi zenitala badu eta lau solairutik beherako altuera badu.

- 32 TEILATUPEKO GELETAN, BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK DISEINATZEKO ORDENANTZEN ARABERA, PIEZA BAKOITZARI ESKATZEN ZAIZKION GUTXIENEN AZALERAK ETA NEURRIAK BETETZEKO, HONAKO HAU APLIKATUKO DA:**
- 32a) Ezin izango dira zenbatu 1,50 m-tik beherako eta 2,50 m-tik gorako garaiera duten azalera, eta baldintza hau bete beharko da: azalera erabilgarriaren % 70ak 2,20 m-tik gorako altuera librea izatea.
 - 32b) Ezin izango dira zenbatu 1,50 m-tik beherako eta 2,50 m-tik gorako garaiera duten azalera, eta baldintza hau bete beharko da: azalera erabilgarriaren % 50ak 2,20 m-tik gorako altuera librea izatea.
 - 32c) Ezin izango dira zenbatu 1,50 m-tik gorako eta 2,50 m-tik beherako garaiera duten azalera, eta baldintza hau bete beharko da: azalera erabilgarriaren % 70ak 2,50 m-tik gorako altuera librea izatea.
 - 32d) Aurreko horietatik, bat bera ere ez.
- 33 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN DISEINUARI BURUZKO ORDENANTZEN ARABERA, ATIKOKO SOLAIRUETAKO ETXEBIZITZEN AZALERA ERABILGARRIAN SARTUKO DA KANPOKO ESPAZIOEN AZALERA ERABILGARRIA, HONAKO KASU HAUETAN:**
- 33a) Inoiz ez
 - 33b) Hirigintza-baldintzek hala egitea eskatzen dutenean, % 50 zenbatuko da gehienez ere etxebizitzaren azalera erabilgarri itxiaren % 10era arte, harik eta ezarritako gehieneko azalera erabilgarria osatu arte.
 - 33c) Hirigintza-baldintzek hala egitea eskatzen dutenean, % 50 zenbatuko da, gehienez ere 10m² etxebizitza bakoitzeko, harik eta ezarritako gehieneko azalera erabilgarria osatu arte.
 - 33d) Diseinu-arrazoiek eragindakoa denean, %50a zenbatuko da, gehienez ere 10 m² etxebizitza bakoitzeko, harik eta ezarritako gehieneko azalera erabilgarria osatu arte.
- 34 IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO 20/1997 LEGEAK EZARTZEN DU ERAIKUNTZAREN IRISGARRITASUNA BERMATU BEHARKO DELA...**
- 34a) Oin berriko eraikinak eraikitze lanetan, lurrazpikoak kanpoan utzita.
 - 34b) Oin berriko eraikinak eraikitze lanetan, inolako salbuespenik gabe.
 - 34c) Oin berriko eraikinak eraikitze lanetan, lurrazpikoak barne, familia bakarreko etxebizitzetara dagozkienak izan ezik.
 - 34d) Oin berriko eraikinak eraikitze obra guztietan, hirigune historikoetako bizitegi-eraikinak izan ezik.
- 35 IRISGARRITASUN-BALDINTZEI BURUZKO 68/2000 DEKRETUAREN ARABERA, ESPAZIO PUBLIKOETAN, ARRAPALEK...**
- 35a) Gutxienez 1,80 m-ko zabalera izango dute
 - 35b) Oinezkoen ibilbidearenak baino handiagoak diren desnibelak eta aldapak gainditzeko aukera emango dute.
 - 35c) Gehienez ere % 10eko aldapa izango dute 10 metrora arteko luzera duten tartetetan.
 - 35d) Ezingo dute % 6tik gorako inklinaziorik izan.

36 HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAK HONAKO PRINTZIOPIO HAUETAKO BAT HARTUKO DU IRIZPIDE ORIENTATZAILETZAT:

- 36a) Hutsik dauden etxebizitzaren erabilerak lehentasuna izango du etxe-hazkunde berriekiko.
- 36b) Lurzorua ahalik eta gehien okupatzea
- 36c) Eraikuntza berriak eraikitzea
- 36d) Ibilgailuentzako bideak hobetzea.

37 ZERK LEGITIMATZEN DU LURZORUAREN ERABILERAREN ANTOLAMENDUA?

- 37a) Lurzorua jabeen eskubideek.
- 37b) Etekin ekonomikoak eskuratzeak.
- 37c) Interes publikoak.
- 37d) Diseinu arkitektonikoak.

38 HIRI-LURZORUAREN EZAUGARRI NAGUSIA FUNTSEAN HAUXE DA:

- 38a) Eraikuntzak hartarako izendatutako eremu baliagarriaren erdia gutxienez okupatzea.
- 38b) Eraldatua izatea eta hiri-bilbean sartuta egotea.
- 38c) Plangintzaren arabera urbanizagarria izatea, nahiz eta hasieran ez eduki batere urbanizaziorik.
- 38d) Lehendik zegoena baino hirigintza-eraikigarritasun haztatu txikiagoa izatea.

39 HIRI-LURZORUAREN EREMUAK ARRAZOI HONENGATIK UTZIKO DIO ORUBE IZATEARI:

- 39a) Orubearen gaineko eraikuntza aurri-egoeran egoteagatik.
- 39b) Plan Berezi batek hala adierazten duelako.
- 39c) Urbanizazioa zaharkiturik geratu delako edo ezegoki bihurtu delako.
- 39d) Eraikitze obligazioa ez betetzeagatik.

40 BIDEZKOA IZANGO DA LURSAIL BAT URBANIZAEZIN GISA SAILKATZEA:

- 40a) Haren kostu handiagatik urbanizagarria ez denean.
- 40b) Lursailaren hirigintza-eraldaketa bidezkoa ez denean.
- 40c) Landa-lur bat denean.
- 40d) Beharrezkoa ez denean, hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri asko dagoelako.

41 NOIZ DA LURZORU BAT URBANIZAGARRI?

- 41a) Dagoeneko urbanizatu samar dagoen lurzoru bat denean.
- 41b) Plan Partzial batek hala dioenean.
- 41c) Hiri-lurzoru baten ondoan dagoenean.
- 41d) Hirigintza-erabileren euskarri izateko egokitzat jotzen denean.

42 HIRIGINTZA-EKINTZAK SORTUTAKO GAINBALIOETAN ERKIDEGOAREN PARTAIDETZARI DAGOKION DIRU-ZENBATEKOAREN % 15 DOAN LAGATZEA, HONELAXE GAUZATUKO DA:

- 42a) Partzela eraikigarrian edo partzela eraikigarrietan, edo Administrazioak gutxienez orube baten edo partzela eraikigarri baten jabetza eskuratzea ezinezkoa denean, lagapena dirutan ordaindu ahal izango da.
- 42b) Partzela eraikigarrian nahiz partzela eraikigarrietan, edo lagapena, dagokion balioaren arabera, dirutan ordeztu ahal izango da, edo haren balioari dagozkion erabilera publikoei lotutako higiezinetan.
- 42c) Partzela eraikigarrian edo partzela eraikigarrietan, edo Administrazioak gutxienez orube baten edo partzela eraikigarri baten jabetza eskuratzea ezinezkoa denean, lagapena, dagokion balioaren arabera, dirutan ordeztu ahal izango da, edo haren baliori dagozkion etxebizitzetan.
- 42d) Partzela eraikigarrian edo partzela eraikigarrietan; edo Administrazioak gutxienez orube baten edo partzela eraikigarri baten jabetza eskuratzea ezinezkoa denean, lagapena, dagokion balioaren arabera, dirutan ordeztu ahal izango da, edo haren baliori dagozkion etxebizitza babestuetan.

43 AHALMEN DA LURZORU URBANIZAGARRIAN:

- 43a) Eraikitze lizentzia eskatu ahal izatea.
- 43b) Haren hirigintza-egoera mugarik gabe gordetzea.
- 43c) Lurzoruen hirigintza-eraldaketa dakarten erabilerak edo jarduerak egitea.
- 43d) 2/2006 Legearen 36. artikuluan aipatzen diren behin-behineko obrak eta instalazioak egitea.

44 LURZORUAREN JABETZAREN BETEBEHARRA DA:

- 44a) Lurzoruari lurraldearen eta hirigintzaren antolamenduak aurreikusitako erabilera ematea.
- 44b) Lurzoru urbanizagarri eta hiri-lurzoru finkatugabeen, lursaila urbanizatu baino lehen hura egokitzea.
- 44c) Hiri-lurzoruan, dagokion zuzkidura-karga finkatzea edo altxatzea.
- 44d) Finkatutako hiri-lurzoruan, Udalarai eraikigarritasunaren % 15 lagatzea.

45 LURZORU URBANIZAEZINA:

- 45a) Etorkizuneko hiriginza-eraldaketarako egokia da.
- 45b) Birkalifikatu daiteke sute kasuan, sutea izan eta 5 urtera.
- 45c) Ez da egokia hirigintzako edukiak dituzten egintzak, erabilerak edo jarduerak bermatzeko.
- 45d) Egokia da hirigintza-partzelazioaren xede izateko.

46 ERAIKIGARRITASUN FISIKOTZAT HAU HARTUKO DA:

- 46a) Sabai-azalera osoa, eraikitakoa edo eraiki gabea, sestra gainekoa eta sestra azpikoa.
- 46b) Sestra gainean eraikitako edo eraiki gabeko sabai-azalera osoa.
- 46c) Hirigintza-eraikigarritasunari dagokiona.

46d) Lortzen dena lurralde-eremu batean erabilera bakoitzaren edo erabilera-multzoen hirigintza-erakigarritasuna haztatzean.

47 BEHIN BEHINEKO ERABILERA IZAN DAITEKE:

47a) Bizitegi-erabilera.

47b) Industria-erabilera.

47c) Birpartzelazio- edo desjabetze-prozeduraren ondorengoak.

47d) Bulegoko eta merkataritzako erabilerak.

48 HIRIGINTZA-PARTZELAZIO BAT DA FINKA BERRIAK EDO INDEPENDENTEAK ZATITZEA...

48a) Lurzoru urbanizaezinean egiten bada.

48b) Hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian egiten bada.

48c) Landa- edo baso-finkak banatzen badira.

48d) Lizentziarik gabe egiten direnean/direnak.

49 EZ DA BIRPARTZELAZIO BATEN XEDE:

49a) Birpartzelazioaren aurretik dauden finkak, partzelak eta orubeak erregularizatzea.

49b) Hirigintza-antolamenduaren ondoriozko onurak eta kargak modu bidezkoan banatzea.

49c) Etorkizuneko eraikin baten bolumenen eta sestren azterketa.

49d) Hirigintza-erakigarritasun fisikoa euskarri egokia izan dezakeen lurzoruan kokatzea.

50 BIRPARTZELAZIO BAT HONAKO HAUEK SUSTATU DEZAKETE:

50a) Eskubideen % 40 gutxienez ordezkatzan duten titularrek.

50b) Eskubideen % 45 gutxienez ordezkatzan duten titularrek.

50c) Eragile urbanizatzaille batek.

50d) Administrazioak, soilik birpartzelatu beharreko lursailen jabe bada.

51 2/2006 LEGEAREN ONDORIOETARAKO, AREA DA:

51a) Antolamendu-eremu bat lurzoru urbanizagarrian.

51b) Orube multzo bat.

51c) Lurzoru urbanizagarriaren sektore bat.

51d) Hiri-lurzoruaren antolamendu xehatuko eremu bat.

52 HIRIGINTZAREN EGITURAZKO ANTOLAMENDUA HONAKO HAUEK OSATZEN DUTE:

52a) Lurzoruaren sailkapenak.

52b) Eremu bateko etxebizitza-kopuruak.

52c) Lurzoru urbanizagarriaren kalifikazio xehatuak.

52d) Eraikinen altuerak.

53 EGITURAZKO ANTOLAMENDUKO PLANAK DIRA:

53a) Plan partzialak.

- 53b) Plan bereziak.
- 53c) Sektorekatze-planak.
- 53d) Urbanizazio-proiektuak.

54 ANTOLAMENDU XEHATUKO PLANAK DIRA:

- 54a) Lurraldeko plan Partzialak.
- 54b) Plan Partzialak.
- 54c) Xehetasun Azterketak.
- 54d) Bateragarritze Planak.

55 ANTOLAMENDUZ KANPOKO ERAIKINAK DIRA:

- 55a) Hirigintza-plangintzak eraberritzea aurreikusten dituenak.
- 55b) Aurri-egoera ekonomikoan daudenak.
- 55c) Plangintzak desagertzea aurreikusten dituenak.
- 55d) Desjabetu egin behar direnak.

56 JARDUERA-PROGRAMAK ARAUBIDE PUBLIKOZ EGIKARITZEKO SISTEMA BAT DA HONAKO HAU:

- 56a) Hitzarmen-sistema.
- 56b) Lankidetzeta-sistema.
- 56c) Eragile urbanizatazalea.
- 56d) Salerosketa.

57 NORK DU LURSAILAK, ETXEAK, ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK KONTSERBATZEKO BETEBEHARRA?

- 57a) Udalak.
- 57b) Lurralde Administrazioak.
- 57c) Jabeek, aurri-egoeran dauden eraikinak badira.
- 57d) Jabeek.

58 HIRIGINTZAKO ARAU-HAUSTE OSO LARRIA DA:

- 58a) Lizentziarik ez duten eta aplikatu beharreko hirigintza-antolamenduarekin bat ez datozen erabilerak.
- 58b) Hirigintzako partzelatze-ekintzak lurzoru urbanizaezinean.
- 58c) Antolamenduak baimentzen duen eraikigarritasun fisikoa kontuan hartuta gehiegi eraikitzea.
- 58d) Ikuskatze-lana oztopatzea.

59 ARAU-HAUSTE LARRIEK HONAKO EPE HONETAN PRESKRIBATZEN DUTE:

- 59a) Bost urte.
- 59b) Hiru urte.
- 59c) Lau urte.
- 59d) Bi urte.

60 EZ DUTE HIRIGINTZA-LIZENTZIARIK BEHAR:

- 60a) Urbanizazio Proiektu baten barruan dauden obrek
- 60b) Berotegiak ezartzeak
- 60c) Barne-antolamendua aldatzen duten obrek
- 60d) Eraikuntzaren urbanizazio-obra osagarriek.

61 KASU HAUETATIK, ZEIN EZ DA AURREIKUSTEN EIBARKO HAPO-N PLAN OROKORRAREN BERRIKUSKETAREN DETERMINATZAILE GISA?

- 61a) Planaren lurralde esparruaren barruan, biztanleria, errenta edo enplegu aurreikuspenetan alterazio edo aldaketa funtsezkoak gertatzea.
- 61b) Planeko aurreikuspenak maila handian bete izana, planifikatutako etxebizitza berrien % 75i "eraikuntza baimena" eman zaiolako edota "Ekonomia Jardueretarako Erabilera" guneetan aurreikusitako aprobetxamenduaren %75 okupatu delako.
- 61c) Jarduketa bat onartzea, berez edo azken bi urteetan onartutakoekin batera, udalerriko edo lurralde-eremuko biztanleriaren edo lurzoru urbanizatuaren azaleraren % 20 baino gehiago handitzea dakarrena.
- 61d) Hasieran kontuan hartu ez diren eta beste lurralde-eredu bat ezartzea eragiten duten inguruabarrak agertzea.

62 HAPOn EZARRITAKOAREN ARABERA, HAPOren INTERPRETAZIOAK ARRAZOIZKO ZALANTZAK SORTZEN BADITU, ZEIN PROZEDURA ERABILIKO DU UDALAK INTERPRETAZIO ZUZENA EZARTZEKO?

- 62a) Txosten juridikoa egingo da eta Idazkari Nagusiaren irizpenaren bidez ezarriko da.
- 62b) Horri buruzko txosten teknikoa eta txosten juridikoa egingo dira, eta Hirigintzako Batzorde Aholkulariaren irizpenaren bidez ezarriko da.
- 62c) Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari txosten tekniko-juridiko loteslea eskatuko zaio.
- 62d) Txosten tekniko-juridiko bat beharko da, interpretaziorako aukerak bilduko dituen, eta Udalbatzak zehaztuko du zein den zuzena.

63 HAPO-K EZARRITAKOAREN ARABERA, NON JAR DAITEZKE KARTELAK?

- 63a) Berariazko Udal Ordenantzak ezarritako lekuetan bakarrik.
- 63b) Hiri-lurzoruan bakarrik, hiri erabilera lurretan, eraikuntza lizentzia lortu arte.
- 63c) Hiri-lurzoruan dauden lurretan, betiere foru-titulartasuneko errepideetatik ikusten ez badira.
- 63d) Debekatuta dago publizitate-hesiak jartzea udalerrri osoan.

64 ZEIN ESPARRUTAN EZ DA EKIPAMENDU-ERABILERA PRODUKZIO JARDUEREKIN BATERAGARRIA DEN ERABILERA GISA HARTZEN?

- 64a) Otaola
- 64b) Matxaria
- 64c) Asua erreka.
- 64d) Barrena.

65 EIBARKO HAPOren ARABERA, ZEIN DEFINIZIO EZ DA ZUZENA?

- 65a) Erabilera nagusia, Planak lurzoru edo eraikin baterako lehentasunezko zatitza definitzen duen erabilera xehetua da.
- 65b) Erabilera baimendua, Planak lurzoru edo eraikin bakoitzerako hautazko zatitza onesten duena da. Eraikin jakin batean ezarri beharreko erabilera hautatu ondoren, erabilera nagusitzat hartuko da.
- 65c) Erabilera debekatua, planeamenduak ezartzerik uzten ez duena da.
- 65d) Erabilera toleratua, planeamenduak debekatzen ez duen arren, denboraldi jakin baterako baimendu ahal dena da.

66 NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO USTIATEGIETAKO ETA BIZITEGIETAKOAK EZ DIREN ERAIKIN ETA INSTALAZIO OSAGARRIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK, BASO-, NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZA-EREMUETAN ETA LANDAZABALEAN LURZORU URBANIZAEZINEAN ERAIKITZEN BADIRA:

- 66a) Gutxieneko lurzatiaren azalera 20.000 m², gutxieneko distantzia hiri-lurzorura edo lurzoru urbanizagarria 50,00 m, lurzatiaren mugara gutxieneko distantzia: 10,00 m.
- 66b) Gutxieneko lurzatiaren azalera 10.000 m², gutxieneko distantzia hiri-lurzorura edo lurzoru urbanizagarria 50,00 m, lurzatiaren mugara gutxieneko distantzia: 15,00 m.
- 66c) Gutxieneko lurzatiaren azalera, 10.000 m²; gutxieneko distantzia, ustiapenetik kanpoko finketan dauden landaz kanpoko erabileretarako eraikinetara, 50,00 m; lurzatiaren mugara gutxieneko distantzia: 10,00 m.
- 66d) Gutxieneko lurzatiaren azalera, 20.000 m²; gutxieneko distantzia, ustiapenetik kanpoko finketan dauden landaz kanpoko erabileretarako eraikinetara, 50,00 m; lurzatiaren mugara gutxieneko distantzia: 15,00 m.

67 ZER DA TXABOLA BAT, HAPOn ARABERA?

- 67a) Modu prekarioan eraikitako eraikuntza, natura-ingurunea, natura-, ingurumen- eta paisaia-baldintza egokietan zaintzearen eta, hala badagokio, lehengoratzearen aurka dagoena.
- 67b) Lanabesak gordetzeko, ukuilu txikietarako edo aisialdirako eraikin landatarra, ezingo dena inolaz ere bizitzeko toki izan. Material ez-iraunkorrez egina egongo da, akabera pintatuarekin eta estalkian teilak dituela.
- 67c) Aldi baterako eraikin txikia, nekazaritza-lanetarako lagungarria, nekazaritzako tresnak eta lanabesak gordetzeko eta abere txikiak gordetzeko egina.
- 67d) Hondakin edo kalitate txarreko materialekin egindako etxebizitza apala, bizigarritasun-baldintzarik gabea eta lurzoru urbanizagarrian edo/eta urbanizaezinean kokatua.

68 OSTALARITZAKO EIBARKO ORDENANTZAREN ARABERA, UDALAK SISTEMA ELEKTRONIKO MUGATZAILEA ETA ERREGISTRATZAILEA INSTALATZEA ESKATU AHAL IZANGO DU ...

- 68a) Establezimendu berri guztietan eta lehendik dagoen eta salaketak jasotzen dituen edozein establezimendutan.
- 68b) III. eta IV. Taldeetako edozein establezimendutan.
- 68c) III. eta IV. Taldeetako edozein establezimendu berritan eta salaketak jasotzen dituen talde horietako edozein establezimendutan.
- 68d) III. eta IV. Taldeetako edozein establezimendu berritan eta salaketak jasotzen dituen edozein establezimendutan.

69 GAZTEENTZAKO AISIALDIKO LOKALEN GUTXIENKO AZALERA...

- 69a) Hogeita hamar metro karratukoa da, beheko solairuan neurtua eta, halakorik balego, solairuarte kontuan hartzeke.
- 69b) Hogeita hamar metro karratukoa da, beheko solairuan neurtua; solairuarte kontuan hartuta gutxienerako altuerak betetzen baditu.
- 69c) Hogeita metro karratukoa da, beheko solairuan neurtua; solairuarte kontuan hartuta gutxienerako altuerak betetzen baditu.
- 69d) Hogeita metro karratukoa da, beheko solairuan neurtua eta, halakorik balego, solairuarte kontuan hartzeke.

70 GAZTEEN AISIALDIRAKO LOKALAK ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN ARABERA...

- 70a) Aisialdirako lokalak gaueko 10etatik aurrera itxi egingo dira eta ez dute inongo jarduerarik egingo. Ostiral, larunbat eta jaiegun bezperak dira salbuespen bakarrak.
- 70b) Aisialdirako lokalak gaueko 10etatik aurrera itxi egingo dira eta ez dute inongo jarduerarik egingo. Ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan ixteko ordutegia ordu eta erdi gehiagokoa izango da.
- 70c) Aisialdirako lokalak gaueko 10etatik aurrera itxi egingo dira eta ez dute inongo jarduerarik egingo. Ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan ixteko ordutegia ordu eta erdi gehiagokoa izango da. Maiatzetik urria bitartean, egunero beste ordubete gehiago izango dute.
- 70d) Aurreko erantzun horietatik bat bera ere ez da zuzena.

71 TERRAZAK ARAUTZEN DITUEN EIBARKO ORDENANTZAREN ARABERA, KANPOKO BEROGAILUAK...

- 71a) Terraza iraunkorretan baino ezin dira jarri.
- 71b) Gas- edo ke-emisiorik sortzen ez duen beste erregai batekin edo elektrizitatearekin bakarrik funtziona dezakete.
- 71c) Berogailu elektrikoetatik kanpo gasezko berogailuak baino ez dira onartuko.
- 71d) Ezin dira kanpoko berogailuak jarri, energia-eraginkortasunaren eta klima-aldaketaren aurkako neurrien kontrakoak baitira.

72 IGOGAILUAK JARTZEKO ETA FATXADAK ZAHARBERRITZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO BALDINTZA HAUETAKO ZEIN EZ DA ZUZENA?

- 72a) Azalera erabilgarri osoaren hirutik bi gutxienez etxebizitzarako izatea.
- 72b) Eraikina ez egotea aurri-egoeran, neurri baten eraitsia edo barrutik hustua.
- 72c) EIT (eraikinaren ikuskapen teknikoa) egin eta aurkeztu izana, eraikinaren antzinateak hala eskatzen badu
- 72d) Hamar urtetik gorako eraikina izatea.

73 PLAN OROKORRAREN ARABERA, "INTERES KULTURALEKO ONDASUN" GISA KATALOGATUTAKO ERAIKINAK KONTSERBATZEKO BETEBEHARRA...

- 73a) Udalarari dagokio
- 73b) Jabeei, edukitzaileei eta gainerako titularrei dagokie.
- 73c) Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean partekatutako karga da.
- 73d) Ez da zehazten nori dagokion.

74 PLAN OROKORREKO ERAIKUNTZAREN ORDENANTZA OROKORREN ARABERA, HEGALAK UHARTE-PATIOETAN...

- 74a) Ez dira inolaz ere onartuko.
- 74b) Patioak 12 m baino gehiagoko zabalera badu bakarrik onartuko dira.
- 74c) Balkoi eta balkoi multzoen formako hegala baino ez dira onartuko.
- 74d) Hegal itxien kasuan, gehieneko hegala 80 cm-koa izanen da.

75 PLAN OROKORREKO ERAIKUNTZAREN ORDENANTZA OROKORREN ARABERA, ERAIKUNTZAREN GEHIENENKO ALTUERAREN GAINETIK, ORO HAR, ERAIKUNTZA HAUEK ONARTU AHALKO DIRA:

- 75a) Estalkiko edo teilatuko isurialdeak, gehienez ere 40 graduko inklinazioarekin.
- 75b) Eskailera kaxaren erremateak, igogailuen etxolak, deposituak eta bestelako instalazioak, gehienez ere 4,5 metroko altuera izango dutenak eta fatxadatik gutxienez 2 m atzeraemango direnak.
- 75c) Gehienez ere % 40ko inklinazioa duten estalkiko edo teilatuko isurialdeak, bakarrik eten daitezkeenak hutsuneak irekitzeko paramentu bertikalak izateko .
- 75d) Karelak, barandak eta apaindurazko erremateak, gehienez ere 2,00 m-ko altuerarekin

76 PLAN OROKORREKO ERAIKUNTZARI BURUZKO ORDENANTZA OROKORREN ARABERA, ERAIKUNTZAREN GEHIENENKO ALTUERA “PROFILAREN” BIDEZ ARAUTZEN DENEAN...

- 76a) Plano bertikal batek ebakitako eraikuntza irudikatzen duen irudiko altuera partzialen eta barne-forjatuen bidez definitzen da.
- 76b) Plano bertikal batek ebakitako eraikinaren elementu esanguratsuen altueren bidez definitzen da.
- 76c) Plano bertikal batek ebakitako eraikuntza irudikatzen duen irudiaren kanpoko inguratzailerearen bidez definitzen da, eta, betiere, garaiera partzialen eta barneko forjatuen antolaerara zabaltzen da.
- 76d) Plano bertikal batek ebakitako eraikina adierazten duen irudiaren kanpoko inguratzailerearen bidez definitzen da. Planak berariaz hala adierazten duenean bakarrik zabaltzen da kontzeptu hori altuera partzialen eta barneko forjatuen antolaerara.

77 EIBARKO PLAN OROKORRAREN KULTURA-ONDAREAREN KATALOGO BARRUAN, ZER ERAIKIN SARTZEN DIRA BABES BEREZIKO ARAUDIAN?

- 77a) Eibarko Ondare Eraikirako interes arkitektonikoko ondasuntzat sailkatutako higiezin guztiak.
- 77b) Monumentu edo Interes Kultureko Ondasun izendapenik ez izan arren, garrantzi bereziko elementu edo balioak dituzten ondasun higiezinak ingurumen-ospe hutsetik harago.
- 77c) Garrantzi bereziko balio arkitektonikorik ez duten baina ondare eraikiaren zati interesgarria osatzen duten elementu guztiak, ikuspegi tipologikotik elementu adierazgarriak diren aldetik, eta zaindu eta haien ezaugarriei balioa emateko, bereziki babestu behar direnak.
- 77d) Aurreko guztiak.

78 PLAN OROKORREKO BABES BEREZIKO A MAILAN SAILKATUTAKO ERAIKIN BATEAN, IGOGAIKULARIK JAR AL DAITEKE?

- 78a) Bai, irisgarritasun unibertsala bermatzeko, nahiz eta eraikuntzaren elementu tipologikoei, formalei eta egiturazkoei eragin.

- 78b) Ez, igogailua ez baita oinarrizko instalazio teknologiko eta higieniko-sanitarioen parte.
- 78c) Ez, instalazioak estalkiaren formari eragiten badio.
- 78d) Bai, bada, oinarrizko instalazio teknologiko eta higieniko-sanitarioen parte da, betiere, eraikuntzaren elementu tipologikoak, formalak eta egiturazkoak errespetatzen badira, eta aldez aurretik Kultura Ondarearen Batzordeak estalkiaren formaren inguruko eraginari buruzko aldeko irizpena ematen badu.

79 OSASUNGARRITASUN- ETA BIZIGARRITASUN-BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN PLAN OROKORREKO HIRIGINTZA ARAUETAKO 2.4.03.02.02 ARTIKULUAN JASOTAKO GUTXIENEO BALDINTZAK...

- 79a) Hiri-lurzoruan dauden eraikin guztiei aplikatuko zaizkie.
- 79b) Plan Orokorra garatzeko egiten diren eraikuntza guztiei aplikatuko zaizkie.
- 79c) Babes ofizialeko araubideari eta Plan Orokorra onesten den egunean daudenei aplikatuko zaizkie.
- 79d) Ez zaizkie aplikatzen babes ofizialeko araubideari eta Plan Orokorra onesten den egunean daudenei.

80 GELEN GUTXIENEO BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN PLAN OROKORREKO 2.4.03.02.02 ARTIKULUAN ZEHAZTUTAKO OSASUNGARRITASUN- ETA BIZIGARRITASUN-BALDINTZEN ARABERA, HIRU LOGELA DITUEN ETXEBIZITZA BATEK GUTXIENEZ HAUEK IZAN BEHARKO DITU:

- 80a) 9 m2-ko sukaldea; 19 m2-ko egongela; 12 m2-ko logela 1.
- 80b) 8 m2-ko sukaldea; 20 m2-ko egongela; 12 m2-ko logela 1.
- 80c) 9 m2-ko sukaldea; 18 m2-ko egongela; 10 m2-ko logela 1.
- 80d) 8 m2-ko sukaldea; 19 m2-ko egongela; 12 m2-ko logela 1.

81 EIBARKO UDALERRIAN OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUAK ETA ANTZEKOAK KOKATU, INSTALATU ETA JARDUTEKO BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN OSTALARITZAKO ORDENANTZA HAUEI APLIKATUKO ZAIE:

- 81a) Bai instalazio berriei, bai lehendik daudenak handitzeari, eta behin-behineko eta aldi baterako jardueren instalazioei.
- 81b) Bai instalazio berriei, bai lehendik daudenak handitzeari, behin-behineko eta aldi baterako jardueren instalazioak izan ezik.
- 81c) Instalazio berriei bakarrik.
- 81d) Behin-behineko eta aldi baterako jardueren instalazioei bakarrik.

82 IRISGARRITASUN-BALDINTZAK HOBETZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZAREN HELBURUA ERREFORMA-JARDUKETEN HIRIGINTZA- ETA ERAIKUNTZA-GORABEHERAK ARAUTZEA DA, HAIEN HELBURUA ERAIKIN HAUEN IRISGARRITASUN-BALDINTZAK HOBETZEA BADA:

- 82a) Eibarko udalerrian kokatutako eraikinak.
- 82b) berariazko antolamenduz kanpokoak kasuan dauden higiezinak izan ezik.
- 82c) Etxebizitzak dituzten eraikinak, eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Babes Araubide Bereziaren menpe dauden Eraikinen Katalogoan ez daudenak.
- 82d) Erabilera nagusia bizitegi kolektiboa duten eraikinak

83 LEHENDIK DAUDEN ERAIKINETAKO IRISGARRITASUN-BALDINTZAK HOBETZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZAN, PROIEKTU TEKNIKOEK EDO, HALA BADAGOKIO, ALDEZ AURREKO AZTERKETEK, IGOGAILUA JARTZEKO LEKUAREN AUKERAKETA MODU ARRAZOITUAN JUSTIFIKATU BEHARKO DUTE KOKALEKU POSIBLEEN ORDENA HONI JARRAITUZ:

- 83a) Kokaleku bat ez da lehenetsiko beste baten gainetik, baldin eta igogailurako aukeratu den kokalekua arrazoiz justifikatzen bada.
- 83b) Eraikinaren kanpoaldean, espazio pribatuaren gainean; eraikinaren barruan, eskailera-kaxan; eraikinaren barruan, barruko patioan; eraikinaren barruan, egoera berezietan; eraikinaren kanpoaldean, jabari publikoaren gainean.
- 83c) Eraikinaren kanpoaldean, espazio pribatuaren gainean; eraikinaren kanpoaldean, egoera berezietan; eraikinaren barruan, eskailera-kaxan; eraikinaren barruan, barruko patioan; eraikinaren barruan, egoera berezietan.
- 83d) Eraikinaren barruan, eskailera-kaxan; eraikinaren barruan, barruko patioan; eraikinaren barruan, egoera berezietan; eraikinaren kanpoaldean, espazio pribatuaren gainean; eraikinaren kanpoaldean, jabari publikoaren gainean.

84 HIRI-IZAERAKO BIDE PUBLIKOEN ERABILERA, TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA SEGURTASUNA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAK JASOTZEN DUEN MODUAN, NORI EMAN AHAL ZAIZKIO ERABILERA IRAUNKORREKO PASABIDERAKO LIZENTZIAK?

- 84a) Automobilaren sektoreko merkataritza-lokalei eta konponketa tailerrei, betiere jardunagatik ibilgailuak sartzten eta ateratzen ibiltzeko premia badago.
- 84b) Merkataritza- eta industria-establezimenduei, 100 m²-ko gutxieneko azalera izan eta duten jardunagatik ibilgailuak sartzten eta ateratzen ibiltzeko premia badute edo zamalanak sarritan egin beharra badute.
- 84c) Ibilgailuetarako gordelekuei, gutxienez 3.500 kilotik beherako karga duten furgonetak edo bost ibilgailuk aparkatzeko lekua dutenak, edo hori baino karga handiagoko hiru kamioi sartzeko modukoak. Ibilgailu bakoitzeko 25 m²-ko azalera erabilgarria eduki behar dute, eta kamioien kasuan, 40 m².
- 84d) Aurreko hiru kasu horiei.

85 BAI EZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA ZUZENA?

- 85a) Tokiko funtzionarioen oinarrizko ordainsariak Udaltzatzen finkatuko ditu, Estatuak ezartzen dituen gehieneko eta gutxieneko mugen barruan.
- 85b) Tokiko funtzionarioen oinarrizko ordainsariak funtzio publiko osorako oro har ezarritako egitura eta zenbateko bera izango dute.
- 85c) Tokiko funtzionarioen oinarrizko ordainsariak Udaltzatzen finkatuko ditu, ordezkari sindikalekin negoziatu ondoren, Estatuak ezartzen dituen gehieneko eta gutxieneko mugen barruan.
- 85d) Aurreko baieztapen horietatik bat bera ere ez da zuzena.

86 JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN 10/2015 LEGEAREN ARABERA, UDALEK, ORDENANTZA BIDEZ, HAU EGIN DEZAKETE:

- 86a) Aparteko ordutegi-araubideari lotuta egoteagatik, araubide berezian jendearentzat irekita dauden establezimenduen existentzia, ezaugarriak eta betebeharrak arautzea.

- 86b) Gertaera edo inguruabar bereziak direla eta, establezimenduen ordutegi orokorra zabaltzea, ordenantzek aurreikusten dituzten kasuetan eta moduetan.
- 86c) Pertsonen eta haien ondasunen segurtasuna bermatzeko eta bertarutzen direnei eta hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko, beharrezkoak diren segurtasun-, osasungarritasun- eta higiene-baldintzak eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak ezartzea.
- 86d) Debekuak, mugak edo murrizketak ezartzea, establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak gehiegi pilatzea saihesteko.
- 87 IRISGARRITASUN-BALDINTZEI BURUZKO 68/2000 DEKRETUAREN ARABERA, ERAIKIN, LOKAL ETA INSTALAZIO HAUEK DIRA “ERABILGARRIAK”:**
- 87a) Araudian ezarritako irisgarritasun-parametro guztiak betetzen dituztela bermatzen dutenak.
- 87b) Beren ezaugarri teknikoek eta diseinuari esker, irisgarritasun-parametroak betetzen direla bermatzeko behar diren egokitze-lanak egitea ahalbidetzen dutenak.
- 87c) Nahiz eta irisgarritasun-parametroetara egokitu ez, ez dutenak galarazten mugikortasun murriztuko pertsonen modu autonomoan erabiltzea.
- 87d) Ezarritako irisgarritasun-parametroak betetzen direla bermatzeko beharrezko egokitze-lanak egin dituztenak.
- 88 LEGEZTATU EZIN DIREN ERAIKIN, ERAIKUNTZA ETA INSTALAZIO KLANDESTINOEN ERAISPENA AGINTZEKO 4 URTEKO GEHIENEZKO EPEA EZ DA ARAUTZEN, BESTEAK BESTE, KASU HONETAN:**
- 88a) Beste erabilera batekin sailkatutako hiri-partzeletan egindakoak.
- 88b) Lurzoru urbanizagarri ez-programatuan egindakoak.
- 88c) Toki Sistemen Sareko zuzkidura publikotzat sailkatutako lurretan egiten direnak.
- 88d) Jabari publikoan edo horren zortasun-eremuetan egindakoak.
- 89 ISOLAMENDU-OBREI DAGOKIEN ZENBATEKOA AITORTZEKO, ERREFORMA EGIN ONDOREN LORTU ETA EGIAZTATU BEHARKO DA GUTXIENEZ...**
- 89a) B energia-ziurtagiria
- 89b) energia-ziurtagiriaren maila bi hobetzea hasierako ziurtagiriarekin alderatuta.
- 89c) B energia-ziurtagiria, edo energia-ziurtagiria maila bitan hobetzea obra egin ondoren.
- 89d) Aurreko erantzun horietatik bat bera ere ez da zuzena.
- 90 IGOGAILUAK JARRI ETA ORDEZKATZEKO ETA FATXADAK ZAHARBERRITZEKO OBRAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAN, AUKERA DAGO APARTEKO KOSTUAK DIRUZ LAGUNTZEKO?**
- 90a) Bai, aparteko kostu horiek beharrezkoak badira fatxada egiteko, erakunde publikoek hala eskatuta, amiantoa kentzeagatik sor daitezkeen kostuak barne.
- 90b) Bai, igogailuak eta fatxadak egiteko aparteko kostuen % 20ko mugarekin.
- 90c) Amiantoa kentzeagatik sor daitezkeen kostuak badira bakarrik.
- 90d) Diruz lagundutako fatxadako 6 euro/m²-ko zenbatekoari 12 euro/m²-ko dirulaguntza gehitu ahal izango zaio, fatxadak berritzeaz gain eraikinen inguratzailea

